**AKTA** / ACTA

**GIZARTE KONTSEILUA/** CONSEJO SOCIAL

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Daniel Zulaika**<br>Presidentea / Presidente |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2023ko, apirilak, 19**/ 19 de abril de 2023<br>**Donostiako Udalan (Areto nagusian)** / Ayuntamiento de San Sebastián (Salón de Plenos)<br>**16:30 (1. deialdia)** /16:30 h (1ª convocatoria)<br>**17:00 (2. deialdia**) /17:00 h (2ª convocatoria) |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización Sesión | 17:50 h |

**GAI-ZERRRENDA:**

ORDEN DEL DÍA

| Gai zerrenda | Orden del día |
|---|---|
| **0.- 17:00** | |
| **ONGIETORRIA ETA PRESIDENTEREN AGURRA**<br>**Daniel Zulaika** | **BIENVENIDA Y SALUDO DEL PRESIDENTE**<br>**Daniel Zulaika** |
| **1.- 17:00-17:05** | |
| **AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTU**<br>**Daniel Zulaika** | **APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR**<br>**Daniel Zulaika** |
| **2.- 17:05-17:10** | |
| **ALKATEA**<br>**Eneko Goia** | **ALCALDE**<br>**Eneko Goia** |
| **3.- 17:10-17:20** | |
| **BIDEOAREN AURKEZPENA**<br>“Zinegotzi baten azalean”<br>**Daniel Zulaika** | **PRESENTACIÓN VÍDEO**<br>“En la piel de una Concejala y un Concejal”<br>**Daniel Zulaika** |

<table>
<tr><td colspan="2">4.- 17:20-18:05</td></tr>
<tr><td>MONOGRAFIKO<br>“Legealdiren amaieran: hiriaren hainbat alderdiren errepasoa "<br><br>• Hiriaren egoera eta Donostiako jarduera arloak, gure ikuspegitik<br>Kepa Torrijos<br>GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUA (ADSIS FUNDAZIOA)<br><br>• Eusko Jaurlaritza. Donostiaren papera Euskadi osoan<br>Jone Berriozabal<br>EUSKO JAURLARITZA<br><br>• Nola ari gara aldatzen, egungo erronkei erantzun hobea emateko?<br>Xabier Riezu<br>DEUSTOKO UNIBETSITATEA<br><br>• Euskararen argi-ilunak<br>Maddi Juanikorena<br>EUSKARAREN KONTSEILUA (BAGERA ELKARTEA)</td><td>MONOGRÁFICO<br>“Al final de la legislatura: un repaso a diferentes aspectos de la ciudad"<br><br>• ¿Estado de la ciudad y áreas de actuación en Donostia desde nuestra perspectiva<br>Kepa Torrijos<br>CONSEJO COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO (ADSIS FUNDAZIOA)<br><br>• El papel de Donostia en el conjunto de Euskadi<br><br>Jone Berriozabal<br>GOBIERNO VASCO<br><br>• ¿Cómo estamos cambiando para dar una mejor respuesta a los desafíos actuales?<br>Xabier Riezu<br>UNIVERSIDAD DE DEUSTO<br><br>• Claroscuros del euskera hoy<br>Maddi Juanikorena<br>CONSEJO EUSKERA (BAGERA ELKARTEA)</td></tr>
<tr><td>• Donostia eta Gipuzkoa, Merkataritza Ganberaren ikuspuntutik<br>Iñigo Muguruza<br>GIPUZKOAKO BAZKUNDEA<br><br>• Donosti, lurraldearen osotasunean<br>Ander Arzelus<br>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA<br>----------------------------------------<br>GALDEREN TXANDA<br>(10 minutu)</td><td>• Donostia y Gipuzkoa desde la óptica de la Cámara de Comercio.<br>Iñigo Muguruza<br>CÁMARA DE GIPUZKOA<br><br>• La ciudad de Donostia en el conjunto del territorio.<br>Ander Arzelus<br>DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA<br>-------------------------------------------<br>RUEDA DE PREGUNTAS<br>(10 minutos)</td></tr>
<tr><td colspan="2">5.- 18:05-18:20</td></tr>
<tr><td>Hiri-proiektu bat: zientzia herritarren eskura<br><br>Julio Arrizabalaga | Kepa Korta</td><td>Un proyecto de ciudad: poner la ciencia al alcance de la ciudadanía<br>Julio Arrizabalaga | Kepa Korta</td></tr>
</table>

| 6.- 18:20-18.35 | |
|---|---|
| Ordenagailu kuantiko bat Donostiarentzat<br>**Ricardo Díez**<br>DIPC | Un ordenador cuántico para Donostia<br>**Ricardo Díez**<br>DIPC |
| **7.- 18:35-18:50** | |
| Fabrika. Orainaldiko eta etorkizuneko proiektua<br>**Ainara Arizabaleta**<br>ADEGI | Fabrika. Un proyecto de presente y de futuro<br>**Ainara Arizabaleta**<br>ADEGI |
| **7.- 18:50-19:00** | |
| **GALDE- ESKAERAK** | **RUEGOS Y PREGUNTAS** |
| **8.- 19:00** | |
| **SAIOAREN AMAIERA**<br>**Daniel Zulaika** | **CIERRE DE LA SESIÓN**<br>**Daniel Zulaika** |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | | |
|---|---|---|
| **ANTON** | **RAUL** | NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN |
| **ARZALLUS** | **M. NEKANE** | UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL PNV-EAJ |
| **ARZELUS** | **ANDER** | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA |
| **BARRIOZABAL** | **JONE** | EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO |
| **BARROSO** | **RAQUEL** | MINUSBALIOTASUN FISIKOAK DITUZTEN PERTSONAK KOORDINAKUNDEKO ORDEZKARI BAT - REPRESENTANTE COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDADES FÍSICAS |
| **BERNARAS** | **AMAIA** | GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA - PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA |
| **CORTAJARENA** | **FRANCISCO JAVIER** | MONDRAGON KORPORAZIOA - MONDRAGÓN CORPORACIÓN |
| **DÍEZ MUIÑO** | **RICARDO** | DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTRE |
| **ECHEZARRETA** | **ARRATE** | FAMILIA URGARIEN ELKARTEAK - ASOCIACIÓN FAMILIAS NUMEROSAS (LILURALDI) |
| **GOIA** | **ENEKO** | DONOSTIAKO ALKATEA-ALCALDE SAN SEBASTIÁN |
| **INSAUSTI** | **AIMAR** | EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO |
| **IRIGARAY** | **ESTHER** | GIPUZKOAKO FUNDAZIO OZEANOGRAFIKOA<br>FUNDACIÓN OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA |
| **JUANIKORENA** | **MADDI** | EUSKARAREN KONTSEILUA - CONSEJO EUSKERA (BAGERA ELKARTEA) |
| **KORTA** | **KEPA** | DONOSTIAKO ESTRATEGIA BULEGOA- OFICINA DE ESTRATEGIA DE SAN SEBASTIÁN |
| **LAGE** | **CRISTINA** | UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PSE |
| **LEKUONA** | **PILAR** | LEHENDAKARIORDEA - VICEPRESIDENCIA<br>ELKARGO PROFESIONALEK - COLEGIO PROFESIONALES (ERIZAINTZAKO ELKARGOA/COLEGIO DE ENFERMERIA) |
| **LICEAGA** | **PAUL** | ADEGI |

| | | |
|---|---|---|
| LUQUIN | ELENA | GIZARTE EKINTZA KONTSEILUA - CONSEJO ACCIÓN SOCIAL (GURUTZE GORRIA) |
| MUGURUZA | IÑIGO | GIPUZKOAKO BAZKUNDEA -CÁMARA DE GIPUZKOA |
| ORMAZABAL | MARKEL | UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL EH BILDU |
| ORMAZABAL | EDURNE | TABAKALERA |
| RIEZU | XABIER | DEUSTOKO UNIBETSITATNEA-UNIVERSIDAD DE DEUSTO |
| TELLEZ | OSCAR | CADENA SER |
| TORRIJOS | KEPA | GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUA - CONSEJO COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO (ADSIS FUNDAZIOA) |
| VILES | JUAN RAMON | PARTAIDETZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA<br>CONCEJAL DELEGADO DE PARTICIPACION CIUDADANA |
| ZULAIKA | DANIEL | LEHENDAKARIA - PRESIDENTE<br>HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA \| MEDALLA MÉRITO CIUDADANO |

**ETORRI DIRENAK / ASISTENTES: (BOTORAKO ESKUBIDERIK GABE / SIN DERECHO A VOTO)**

| | | |
|---|---|---|
| ARIZABALETA | AINARA | ADEGI |
| ARRIZABALAGA | JULIO | |
| IDOETA | Mª JESUS | AUZOKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA<br>CONCEJAL DELEGADO DE BARRIOS |
| VAZQUEZ | AINARA | BAGERA |

**BERTARATZEA DESENKUSATU DUTENAK / EXCUSAN ASISTENCIA:**

**ETORRI EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

| | | |
|---|---|---|
| AGIRRE | AGUSTÍN | OSAKIDETZA (Donostialdea ESI / OSI Donostialdea) |
| AGIRREZABALA | ISABEL | TURISMO SOZIETATEAREN AHOLKU BATZORDE KONTSEILUA - CONSEJO CONSULTIVO DE LA SOCIEDAD DE TURISMO (Donostia Turismo) |
| AIZPURUA | ANDER | KUTXA (GIZARTE EKINTZA - OBRA SOCIAL) |
| APAOLAZA | XABIER | OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILUA – CONSEJO DE LA MEMORIA HISTÓRICA<br>(Genozidioaren biktimen elkartea) |
| ARANBURU | HARKAITZ | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AMARA BAI(AMARA) |
| ARANETA | AITZOLE | UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN DONOSTIA |
| ARRIETA | MADDI | LAB |
| ARRILLAGA | AINHOA | MATIA FUNDAZIOA-FUNDACIÓN MATIA |
| ARTOLA | GEMA | GURASO BAKARREKO FAMILIEN ELKARTEAK - ASOCIACIONES DE FAMILIAS MONOPARENTALES (ASFAMOGI) |
| ARZALLUS | MARIA SOLEDAD | HIRITARRA /CIUDADANA |
| BARBA VERA | SANTIAGO | HIRITARRA /CIUDADANO |
| BARCENA | FÉLIX | ZAHARREN TXOKOAK- HOGARES DE JUBILADOS (GOIKO GALTZARA ELKARTEA/ASOCIACION) |

| | | |
|---|---|---|
| **BERZOSA** | **JUAN CARLOS** | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV LANTXABE (AIETE) |
| **CABALEIRO** | **BEGOÑA** | INGURUMEN KONTSEILUA - CONSEJO MEDIO AMBIENTE (Emaus Fundazioa/Fundación Emaus) |
| **CIGANDA** | **PEDRO** | ZAHARREN TXOKOAK - HOGARES DE JUBILADOS (ERDIALDE ELKARTEA/ASOCIACION) |
| **COROMINAS** | **BORJA** | UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PP |
| **DIAZ** | **MANU** | KIROL FEDERAZIOAK-FEDERACIONES DEPORTIVAS- (FUTBOL FEDERAZIOA/FEDERACIÓN DE FÚTBOL) |
| **DIEZ** | **JOSÉ Mª** | UGT |
| **DIEZ MINTEGUI** | **FERNANDO** | HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO (BERA BERA R.T. Club Deportivo) |
| **ERAÑA** | **JESÚS Mª** | BETERRI-KOSTAKO INDUSTRIALDEA, S.A (Zuatzu) |
| **FERNANDEZ** | **MIREN ARANZAZU** | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AVERIL (LOIOLAKO ERRIBERAK) |
| **FORNIES** | **HAIETT** | GAZTE KONTSEILUA - CONSEJO JÓVENES |
| **GARCÍA** | **IÑIGO** | MERKATARITZA KONTSEILUA - CONSEJO COMERCIO (San Sebastián Shops) |
| **GARCÍA** | **JOSE Mª** | CCOO |
| **GARCÍA** | **CARLOS** | MONDRAGON UNIBERTSITATEA |
| **GARCIA CERRATO** | **LETICIA ROSIBEL** | HIRITARRA /CIUDADANA |
| **GARCÍA-VELILLA** | **RAFAEL** | UDAL PLANEAMENDUKO KONTSEILUA - CONSEJO PLANEAMIENTO MUNICIPAL (Ondarearen Defentsa Elkartea/Asociación Defensa Patrimonio) |
| **GOMEZ** | **BORJA** | KIROL ELKARTE KONTSEILUA - CONSEJO CLUBES DEPORTIVOS (San Sebastián Gipuzkoa Basket) |
| **GOMEZ SAN JOSE** | **MARIA TERESA** | HIRRITARRA /CIUDADANA |
| **GONZALEZ** | **IGOR** | DBUS –DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA/ COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN |
| **IRAOLA** | **ANDONI** | REAL SOCIEDAD |
| **JOHN** | **BELKIS** | ETORKINEN KOLEKTIBOA - COLECTIVO DE INMIGRANTES (ASODEUS ) |
| **LASHERAS** | **AMAIA** | BERDINTASUNAREN KONTSEILUA - CONSEJO IGUALDAD (Asade Elkartea) |
| **MARTINEZ** | **KINO** | GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE GIPUZKOA |
| **MARTINEZ** | **IÑAKI** | GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA FEDERACIÓN MERCANTIL COMERCIANTES DE GIPUZKOA |
| **MARTINEZ DE ARTOLA** | **PEDRO** | MUGIKORTASUN KONTSEILUA - CONSEJO MOVILIDAD (RACC) |
| **MARTINEZ ETXABEGUREN** | **LUIS ANTONIO** | HIRITARRA /CIUDADANO |
| **PILAPANTA** | **GABRIEL ESTEBAN** | HIRRITARRA /CIUDADANO |
| **RIÑÓN DIEZ** | **JOSE Mª** | RENFE ALDIRIKOAK - CERCANÍAS |
| **SALABERRIA** | **AITOR** | KULTUR KONTSEILUA - CONSEJO CULTURA (Taller Kultur Lantegia) |
| **SALVADOR** | **CESAR** | PASAIAKO PORTUKO AGINTARITZA/AUTORIDAD PORTUARIA PASAJES |
| **SÁNCHEZ** | **JOSE MANUEL** | AENA DONOSTIAKO AIREPORTUA - AEROPUERTO DE SAN SEBASTIÁN |
| **SÁNCHEZ** | **MIKEL** | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV Morlanstarrak Auzo Elkartea (MORLANS) |

| | | |
|---|---|---|
| **TABERNA** | **DAVID** | DIARIO VASCO |
| **UGALDE** | **ROSA** | ELKARGO PROFESIONALEK \| COLEGIO PROFESIONALES<br>COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA \|GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZA ELKARGO OFIZIALA |
| **URBIETA** | **USOA** | IKASLEEN GURASO ELKARTEAK - ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES DE ALUMUNNOS Y ALUMNAS - AMPAS (BAIKARA) |
| | | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV PARTE ZAHARREAN BIZI(PARTE ZAHARRA) |
| | | ELA SINDIKATUA |
| | | KULTUR ERAKUNDEA-ENTIDADES CULTURALES |
| | | EUSKO TREN |

**DONOSTIAKO UDALEKO: LEGE ZUZENDARIA /** DIRECCION JURIDICA:

Juan Carlos Etxezarreta

**GIZARTE KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA /** SECRETARIA TECNICA DEL CONSEJO SOCIAL:

Judith Moreno

Maialen Goñi

Arantza Vázquez

| | |
|---|---|
| **PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **POLITIKOAK \| POLÍTICAS-POLITICOS**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres **= 3**<br>**Gizonezkoak /** Hombres **=** 3<br><br>**HERRITARRAK \| CIUADANÍA**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 11<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 11<br><br>**TEKNIKARIAK \| TÉCNICAS Y TÉCNICOS**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 3<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 2 |

| | |
|---|---|
| Dokumentu honetan jaso dira bileran jorratu diren gaiak eta egin diren ekarpenak, bertan landutakoaren lekukotza edukitzeko. Bileran parte hartu dutenen hizketaldiak ez dira hitzez hitz jaso, baizik eta modu laburbilduan. Bileraren garapen eta edukiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu grabaketa **ESTEKA HONETAN** (https://www.youtube.com/watch?v=7pFG-mdykZU) | El presente documento recoge las cuestiones tratadas y las intervenciones que se realizan a lo largo de la sesión, con objeto de poder disponer de un testimonio de lo allí tratado. No presenta de manera literal lo expuesto por las diferentes personas que participaron en la sesión, sino que refleja su contenido de manera sintetizada. Para más información sobre el desarrollo y contenidos de la sesión puede consultarse su grabación en el **SIGUIENTE ENLACE** (https://www.youtube.com/watch?v=7pFG-mdykZU ) |

**Saioaren garapena /** Desarrollo de la sesión:

| | |
|---|---|
| **1. Presidentearen ongietorria eta agurra. Bileraren akta irakurri eta onartzea**<br><br>17:09an, Gizarte Kontseiluko presidenteak, Daniel Zulaikak, bertaratuak agurtu ditu eta bilera irekitzat jo du. | **1. Bienvenida y saludo del presidente. Lectura y aprobación del acta de la sesión**<br><br>A las 17:09, el presidente del Consejo Social, Daniel Zulaika, saluda a las personas presentes y declara abierta la sesión. |

| | |
|---|---|
| Jarraian, aurreko akta onartzea proposatu du, eta akta 17:10ean onartu da.<br>Alkatea ezingo dela etorri azaldu du eta hitz gutxitan gogorarazi du, legegintzaldi honetako Gizarte Kontseiluaren azken bilera honetan, 2020ko martxoaren 5eko bilera eta han jorratu ziren aurkezpenak eta gaiak, COVID-19aren pandemiaren agerpena barne.<br>17:11n gaien zerrendako hurrengo puntua aurkeztu du: bideoaren aurkezpena. Gizarte Kontseilua osatzen duten pertsonak eta erakundeak ezagutzera emateko abian diren aurreikusitako ekintzen artean dago bideoa.<br><br>**2. Bideoaren aurkezpena**<br>**“Zinegotzi baten larruan”**<br><br>Bideoa ikusi ondoren, Gizarte Kontseiluko presidenteak eskerrak eman dizkie bideoan parte hartu dutenei, eta baita bideoa posible egin duten guztiei ere.<br>Zenbait saiotan zehar beren hiriaren ikuspegia gurekin partekatu duten 50 pertsona baino gehiago horiek ere aipatu ditu, eta gaien zerrendako hurrengo puntua aurreratu du, hau da, “Legegintzaldi amaiera: hiriaren zenbait alderdiren gainbegirada” gaiaren inguruko monografikoa. Monografikoan Gizarte Kontseiluko sei kidek parte hartuko dute. Ondoren, hitza eman dio lehenengo hizlariari.<br><br>**3. MONOGRAFIKOA**<br>**“Legegintzaldi amaiera: hiriaren zenbait alderdiren gainbegirada”**<br><br>▪ **Hiriaren egoera eta Donostiako jarduketa eremuak gure ikuspuntutik**<br><br>17:17an, Kepa Torrijosek, SODEPAZ erakundeko Garapenerako Kooperazio eta Hezkuntza Kontseiluko kideak, bere hizketaldia hasi du | Seguidamente propone la aprobación del acta anterior, la cual queda aprobada a las 17:10.<br>Se excusa la presencia del alcalde, y dedica unas palabras, en esta última sesión del Consejo Social de la presente legislatura, a recordar la sesión del 5 de marzo de 2020 y las presentaciones y temáticas que se trataron en la misma, con una mención expresa a la irrupción de la pandemia del COVID-19.<br>A las 17:11 introduce el siguiente punto del orden del día, la presentación del video, el cual enmarca en las acciones previstas y en desarrollo para dar a conocer a las personas y entidades que conforman el Consejo Social.<br><br>**2. Presentación del vídeo**<br>**“En la piel de una Concejala y un Concejal”**<br><br>Tras la visualización del video, el presidente del Consejo Social agradece la participación de quienes aparecen en el video, extendiendo las palabras de agradecimiento hacia todas las personas que lo han hecho posible.<br>Hace también referencia a las más de 50 personas que a lo largo de diferentes sesiones nos han hecho participar de su visión de la ciudad, y adelanta el siguiente punto del día, el monográfico versará en torno a la siguiente temática, “Al final de la legislatura: un repaso a diferentes aspectos de la ciudad", en el que tomarán parte seis personas miembros del Consejo Social, cediendo la palabra al primer ponente.<br><br>**3. MONOGRÁFICO**<br>**“Al final de la legislatura: un repaso a diferentes aspectos de la ciudad"**<br><br>▪ **¿Estado de la ciudad y áreas de actuación en Donostia desde nuestra perspectiva**<br><br>A las 17:17 Kepa Torrijos, miembro del Consejo de Cooperación y Educación para el Desarrollo SODEPAZ, comienza su disertación agradeciendo |

| | |
|---|---|
| gonbidapena eskertuz. Hiriak etorkizunera begira dituen erronkez aritu da, bai eta nazioarteko esparrukoez ere, eta bereziki azpimarratu du “pertsona erdigunean” ipintzen duen garapen jasangarri eta solidarioa.<br>Aurkezpen osagarrian, azken urteotan antolatu diren proiektu eta ekintzak ikusi dira, zenbait hitz nabarmendurekin batera, besteak beste: anaitasuna, ezaguera, feminismoa, lankidetza, ulermena, konplizitatea, ikusgarritasuna, justizia, mobilizazioa, garapena partekatzea, sororitatea, trukea, duintasuna, herritarrak, erresistentzia, aliantza, konfiantza, enpatia, ekitatea, borroka, solidaritatea, kooperazioa, bizikidetza, zainketak, berdintasuna, erresilientzia, autodeterminazioa, intzidentzia, bakera.<br>Azkenik, gonbidapena luzatu die bertaratuei udal webguneko kooperazio atalean sartzeko, bertan baitago ere 2022. urteko jardueren azken memoria.<br>Parte hartzea eskertu ondoren, Daniel Zulaikak hitza eman dio Jone Berriozabali. | la invitación. Habla de los retos a futuro para la ciudad, así como a nivel internacional, poniendo el foco en el desarrollo sostenible y solidario, “con la persona en el centro”.<br>La presentación de apoyo va mostrando proyectos y acciones organizadas en los últimos años, que se ilustran con palabras como fraternidad, conocimiento, feminismo, colaboración, entendimiento, complicidad, visibilidad, justicia, movilización, compartir desarrollo, sororidad, intercambio, dignidad, ciudadanía, resistencia, alianza, confianza, empatía, equidad, lucha, solidaridad, cooperación, convivencia, cuidados, igualdad, resiliencia, autodeterminación, incidencia, paz.<br>Finaliza invitando a los presentes a visitar la página web municipal en el área de cooperación donde se puede encontrar también la última memoria de actividades del año 2022.<br>Tras agradecer la intervención, Daniel Zulaika cede la palabra a Jone Berriozabal. |
| ▪ **Donostiaren eginkizuna Euskadin** | ▪ **El papel de Donostia en el conjunto de Euskadi** |
| 17:26an, Joen Berriozabal, Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetarako sailburuordea, hiri eskalari eta ereduari buruz hitz egiten hasi da, arreta berezia jarrita hiriak eman dituen ekarpen eta urratsei: gizarte kohesioa, zenbait espazio herritarrentzat berreskuratzea, kulturaren moduko sektore estrategikoak bultzatzea edo esparru ekonomiko publiko eta pribatua indartzea, besteak beste. Azpimarratu egin ditu zientziaren eta garapen ekonomikoaren arteko zubien bilaketan egindako lana, edo hiriko unibertsitate eta bikaintasun zentro nagusiek Donostia nazioarteko esparruan ezagutzera emateko egindako lana.<br>Mugikortasunari, energiari eta baliabideak sortzeko ahaleginak bateratzeko beharrari buruz ere aritu da, eta Basque Quantum proiektua aipatu du. Azkenik, hiri proiektuak bultzatzen | A las 17:26, Jone Berriozabal, Viceconsejera de Relaciones Institucionales del Gobierno Vasco, habla sobre la escala de ciudad y el modelo de ciudad, poniendo en el foco en las aportaciones y pasos que se han venido dando en la ciudad, desde la cohesión social, la recuperación de diferentes espacios para la ciudadanía, el impulso a sectores estratégicos como la cultura, o el refuerzo del ámbito económico, público y privado. Hace hincapié en la labor desarrollada en la búsqueda de puentes entre la Ciencia y el desarrollo económico o en el esfuerzo de las universidades y los centros de excelencia con arraigo en la ciudad por proyectar San Sebastián a nivel internacional.<br>Habla también sobre la movilidad, la energía y la importancia en aunar esfuerzos para generar recursos, aludiendo al proyecto Basque Quantum |

| | |
|---|---|
| jarraitzeko eskatu die Udalari, hauteskundeak igarota, eta etorriko den Gizarte Kontseilu berriari.<br>Parte hartzea eskertu ondoren, Daniel Zulaikak hurrengo hizlaria aurkeztu du: Xabier Riezu. | y finaliza emplazando al Ayuntamiento tras las elecciones y al nuevo Consejo Social que vendrá a continuar impulsando proyectos de ciudad.<br>Tras agradecer la intervención, Daniel Zulaika presenta a Xabier Riezu, quien realiza la siguiente intervención. |
| ▪ **Nola aldatzen ari gara uneko erronkei erantzun hobea emateko?** | ▪ **¿Cómo estamos cambiando para dar una mejor respuesta a los desafíos actuales?** |
| 17:30ean, Xabier Riezuk, Deustuko Unibertsitateko Donostiako Campuseko errektoreordeak, hiriari buruzko hausnarketa bat hasi du, eta adierazi du hiri modernoa garela, langabezia tasa baxuarekin, ikasketa maila altuarekin eta bizi kalitate onarekin; unibertsitate hiri bat, lau unibertsitate dituena, ikasketa eskaintza zabalarekin eta jarduera berritzaile nabarmenarekin. Jarraian eta aurkezpen baten laguntzarekin, Deustuko Unibertsitatearen 2023-2026 Plan Estrategikoaren gako nagusiak azaldu ditu: | A las 17:30, Xabier Riezu, vicerrector del Campus de San Sebastián de la Universidad de Deusto, comienza su reflexión sobre la ciudad señalando que somos una ciudad moderna, con baja tasa desempleo, elevado nivel estudios y alta calidad de vida; una ciudad universitaria, con cuatro universidades, notable oferta estudios y una gran actividad innovadora. Para a continuación y apoyándose en una presentación, explicar las grandes claves del Plan Estratégico 2023-2026 de la Universidad de Deusto: |
| · Balioetan lagunduta heztea<br>· Irakaskuntza eskaintza dibertsifikatu eta berritzea<br>· Arreta ezagueraren sorreran eta transferentzian jartzea<br>· Sareko lana eta bere gizarte inpaktua bultzatzea<br>· Misioarekin konpromisoa duen unibertsitate komunitate bat indartzea. | · Formar acompañando en valores<br>· Diversificar e innovar la oferta docente<br>· Focalizar la generación y transferencia del conocimiento<br>· Impulsar el trabajo en redes y su impacto social<br>· Fortalecer una comunidad universitaria comprometida con la Misión. |
| Plana hiriaren E2030DSS estrategiarekin lerrokatuta dagoela azpimarratu du, eta hiriko zenbait arlotako proiektu jakinekin duen lotura goraipatu du, besteak beste: zahartzea, ekonomia, oreka turistikoa, karbono aztarnaren inguruko ikerketak, prestakuntza eta enpresa kultura. | Hace hincapié en el alineamiento de su plan con la estrategia E2030DSS de la ciudad, poniendo en valor la relación con diferentes proyectos de la ciudad, en áreas como el envejecimiento, la economía, el equilibrio turístico, investigaciones relacionadas con la huella de carbono, la formación y la cultura empresarial. |
| Jarraian, Gizarte Kontseiluko presidenteak, parte hartzea eskertu ondoren, hitza eman dio Maddi Juanikorenari. | A continuación, el presidente del Consejo Social, tras agradecer la intervención, cede la palabra a Maddi Juanikorena. |

- **Euskararen argi-ilunak gaur**

17:46an, Euskararen Kontseiluaren eta Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen ordezkaria den Maddi Juanikorenak hitza hartu du eta, aurkezpen baten laguntzarekin, azaldu egin ditu, lehenik, gorantz doan ezaguerari buruzko zenbait datu soziolinguistiko, eta egonkortu egin den hiriko euskararen erabilerari buruzkoak ere.
Euskararen inguruko zenbait erronka azaleratu ditu, euskarak hurbileko harremanetan duen indarra abiapuntu hartuta: komunitate harremanak eta harreman kolektiboak, digitalizazioa eta komunikabideak, hirira iristen diren pertsonen harrera, euskarazko prestakuntzaren doakotasuna, euskara lanean eta kaleko harremanetan. Arreta berezia jarri du euskaldunok erabat euskaraz bizitzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzeko premian.

- **Claroscuros del euskera hoy**

A las 17:46 Maddi Juanikorena, que representa al Consejo del Euskera y a Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea, toma la palabra para apoyándose en su presentación, ir desgranando en primer lugar una serie de datos sociolingüísticos sobre el conocimiento, que sigue aumentado, y uso del euskera en la ciudad, que se encuentra estabilizado.
Pone sobre la mesa una serie de retos en relación con el euskera, partiendo del hecho que euskera tiene fuerza en las relaciones cercanas, en las relaciones comunitarias y colectivas, la digitalización y los medios de comunicación, la acogida de las personas que llegan a la ciudad, la gratuidad de formación de euskera, el euskera en el trabajo y en las relaciones en la calle, para poner el foco en la necesidad de generar las condiciones necesarias de manera que las personas euskaldunes puedan vivir plenamente en euskera.

- **Donostia eta Gipuzkoa Merkataritza Ganberaren ikuspuntutik.**

Daniel Zulaikak hitza eman dio Iñigo Muguruzari, Gipuzkoako Merkataritza Ganberako Marketin zuzendariari, 17:55ean.

Merkataritza Ganbera zer den eta zein eginkizun dituen azaldu ondoren, aurkezpen baten laguntzarekin, Gipuzkoako lurraldearen ezaugarri nagusiak laburbildu ditu, bere ikuspuntutik. Goraipatu egin ditu errenta maila, industriaren pisua eta I+G+Bren aldeko apustua eta inbertsioa, eta aipatu ditu ere industriak ekonomiarako duen profil esportatzailea eta espezializazioa, prestakuntza maila altua, langabezia txikia eta lanaren kulturari, mugimendu kooperatiboari eta abarri lotutako balioak. Honela definitu du Donostia: lurralde

- **Donostia y Gipuzkoa desde la óptica de la Cámara de Comercio.**

Daniel Zulaika cede la palabra a Iñigo Muguruza, director de Marketing de la Cámara de Gipuzkoa a las 17:55.

Tras explicar que es la Cámara de Comercio y sus funciones, apoyándose en su presentación, procede a resumir las principales características del territorio de Gipuzkoa, desde su punto de vista, destacando el nivel de renta, el peso de la industria y la apuesta, inversión en I+D+i; habla del perfil exportador de la industria a economía y de su especialización, así como del nivel de formación, el bajo nivel de paro y los valores vinculados a cultura trabajo, el movimiento cooperativo…. Define San Sebastián como una ciudad de servicios, orientados al territorio

| | |
|---|---|
| industrialerantz zuzendutako zerbitzuen hiria eta turismo hiri nazioartekotua. | industrial, y de turismo, internacionalizada. |
| Etorkizuneko erronken artean aipatu ditu lan merkatuko demografia, absentimoaren ondoriozko lehiakortasun galera, Asiako merkatua enpresen nazioartekotzean, komunikazio azpiegituren hobekuntzak, eraldaketa digitalaren prozesua edo garapen jasangarria. Azkenik, gatazka geopolitikoaren arriskua gogorarazi du.<br>Presidenteak, Daniel Zulaikak, parte hartzea eskertu dio eta hurrengo hizlaria aurkeztu du. | Como retos a futuro, alude a los marcados por la demografía en el mercado laboral, a la pérdida de competitividad por el absentismo, dentro de la internacionalización de las empresas el mercado asiático, mejoras en las infraestructuras de comunicación, el proceso de transformación digital o el desarrollo sostenible. Y finaliza citando el riesgo de conflicto geopolítico.<br>El presidente, Daniel Zulaika, agradece la intervención y presenta al siguiente ponente. |
| ▪ **Donostiako hiria lurraldearen esparruan.** | ▪ **La ciudad de Donostia en el conjunto del territorio.** |
| 18:03an, Ander Arzelusek, Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren Zerbitzu Kabineteko buruak, tituluaren erakargarritasuna aipatuz (Donostia eta Gipuzkoa) hasi du bere mintzaldia. Jarraian, erakunde arteko lankidetza eta interakzioa aldarrikatu ditu.<br>Adierazi du Gipuzkoa aurrendaria dela Europa erakunde arteko lankidetzan.<br>Administrazioak enpresen jasangarritasunean duen eginkizuna azaldu du, konplexutasunari erantzuteko ezin baitira gauzak partzelatu. Kooperazioaren gobernantza aipatu du, mugaz haraindiko lankidetza adibide jarrita, eta, azkenik, herritarrek administrazioarekiko sentitzen duten desafekzioa ere aipatu du, beste modu batera lan egiteko beharra azpimarratuta. | A las 18:03 Ander Arzelus, jefe del Gabinete de Servicios del Diputado General de Gipuzkoa, comienza su disertación aludiendo a lo sugerente del título, Donostia y Gipuzkoa, para abogar a continuación por la colaboración entre las instituciones y la interacción interinstitucional.<br>Señala que Gipuzkoa es pionera en Europa en colaboración interinstitucional.<br>Habla del rol de la administración en la sostenibilidad de las empresas, … explicando que para responder a la complejidad no se pueden parcelar las cosas; cita la gobernanza de la cooperación, pone el ejemplo de la colaboración transfronteriza y finaliza hablando de la desafección de la ciudadanía con respecto a la administración haciendo hincapié en la necesidad de trabajar de otra manera. |
| ▪ **Galdera txanda** | ▪ **Rueda de preguntas** |
| Daniel Zulaikak hartu du hitza, 18:11n, eta galderetarako txanda ireki du. Horren ondoren, gaien zerrendako hurrengo puntua aurkeztu du eta hitza eman die hizlariei. | Daniel Zulaika retoma la palabra a las 18:11, abriendo el espacio para preguntas, tras el cual introduce el siguiente punto del orden el día cediendo la palabra a los ponentes. |

| | |
|---|---|
| **4. Hiri proiektua: zientzia herritarren eskura jartzea**<br><br>**Julio Arrizabalaga \| Kepa Korta**<br><br>▪ **Donostia / San Sebastián Zientzia eta Berrikuntza Hiria**<br><br>18:18an, Kepa Kortak, Donostia / San Sebastián Estrategia Bulegoko zuzendari koordinatzaileak, hiriaren estrategiaren eginkizuna, ondoz ondoko plan estrategikoak eta zientzia eta berrikuntzaren aldeko apustua goraipatu ditu. Hiriaren egoera eta egindako ibilbidea azaldu ditu, arreta berezia jarrita Zientzia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean eta zientzia, teknologia, ezaguera eta berrikuntzaren tokiko ekosisteman, hiriak proiektuak aurrera eramateko duen eginkizun katalizatzailearekin batera. Zentzu horretan, lankidetza publiko-pribatuaren garrantzia eta pertsonen lidergoa azpimarratu ditu, ezinbestekoak baitira zenbait proiektutan.<br><br>Hiriko bio sektorearen bilakaera, garapena eta etorkizuna azaldu ditu, eta arlo nanoteknologiko eta kuantikoaren uneko egoera eta etorkizuneko potentziala ere errepasatu ditu.<br>Azkenik, ezaguera nahikoa eta pentsamendu kritikoa dituzten herritarrak eta administrazioak behar direla esan du, jarduteko eta agertzen diren aukerei onura egokia ateratzeko.<br><br>▪ **Hiri proiektua. Zientzia herritarrengana hurbiltzea**<br><br>18:25ean, Julio Arrizabalagak, Biodonostia OIlko Zientzia eta Medikuntza zuzendari ohiak, “Zientzia herritarrengana hurbiltzea” proiektua aurkeztu du. | **4. Un proyecto de ciudad: poner la ciencia al alcance de la ciudadanía**<br><br>**Julio Arrizabalaga \| Kepa Korta**<br><br>▪ **Donostia / San Sebastián Ciudad de Ciencia e Innovación**<br><br>A las 18:18, Kepa Korta, director coordinador de la Oficina de Estrategia de Donostia / San Sebastián, pone en valor el papel de la estrategia de la ciudad, los sucesivos planes estratégicos, y su apuesta por la ciencia y la innovación, mostrado la situación de la ciudad y el recorrido seguido, poniendo el foco en la Red Vasca de Ciencia e Innovación y en el ecosistema local de ciencia, tecnología, conocimiento e innovación, y en el papel de la ciudad como catalizador con un tejido capaz de “tirar” de los proyectos. En este sentido, hace hincapié en la importancia de la colaboración público-privada y en el liderazgo de personas, clave en determinados proyectos.<br><br>Explica la evolución y desarrollo del sector bio en la ciudad y las perspectivas a futuro, así como el escenario presente en el ámbito nanotecnológico y quántico y sus potencialidades a futuro.<br>Finaliza manifestando que se necesita una administración y ciudadanía con conocimiento suficiente y pensamiento crítico, para actuar y aprovechar acertadamente las oportunidades que se presentan.<br><br>▪ **Un proyecto de Ciudad. Hacer partícipe de la ciencia a la ciudadanía**<br><br>A las 18:25, Julio Arrizabalaga, exdirector científico y médico de IIS Biodonostia, presenta el proyecto “Hacer partícipe de la ciencia a la ciudadanía”. |

| | |
|---|---|
| Lehenik, UNESCOk bultzatzen duen eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat datorren “zientzia irekiaren” kontzeptua azaldu du, hots, ikerketaren irisgarritasuna, lankidetza eta gardentasuna areagotzea. Kontzeptu horrek lau ardatz nagusi ditu: ezaguera zientifiko irekia, zientzia irekiko azpiegiturak, gizarte eragileen konpromiso irekia eta beste ezaguera sistema batzuekiko elkarrizketa irekia. Jarraian, “herritarren zientzian” jarri du arreta. Honela definitzen da kontzeptu hori Europako Gutun Zurian: “Ikerketa zientifikoko jardueretako parte hartze publiko orokorra, non herritarrek ekarpen aktiboa egiten dioten prozesuari: bai ahalegin intelektualari esker, bai beren ingurunearen ezaguerari esker, edo beren tresna eta baliabideei esker”. | Hace referencia, en primer lugar, al concepto “ciencia abierta”, que aboga por una mayor accesibilidad, colaboración, y transparencia de la investigación, asumido por la UNESCO y alineado con los Objetivos de Desarrollo Sostenible-ODS y está sustentado por cuatro pilares, el conocimiento científico abierto, las infraestructuras de ciencia abierta, el compromiso abierto de los actores sociales y el diálogo abierto con otros sistemas de conocimiento. A continuación, se centra en el concepto “ciencia ciudadana”, definido en la Carta Blanca europea como la “Participación pública general en actividades de investigación científica, en la que los ciudadanos contribuyen activamente en el proceso: bien con esfuerzo intelectual, bien con conocimiento de su entorno o aportando sus herramientas y recurso, desgrana sus beneficios”. |
| Gaur egun bizirik dirauen proiektu horren hastapena aipatu du, 2022. urtean, osasunaren teknologiei buruzko bilera batean. Donostian I+Garen herritarren Behatoki bat sortzeko aukera iradoki du. | Hace referencia al germen del proyecto, que surge en 2022, en una reunión sobre tecnologías de la salud y que continúa hasta el presente, apuntando la posibilidad de un Observatorio ciudadano de la I+D en Donostia. |
| Ematen ari diren urratsak azaldu ditu ondoren, hala nola osasunaren arloko elkargo profesionalekin eta ikerketa zentroekin batera egindako lana edo proposamenen diseinu eta plangintza, besteak beste, teknologiaren inguruko herritarren mahai inguruak. | Se refiere a los pasos que se están realizando, como el trabajo conjunto con los colegios profesionales y centros de investigación del ámbito de la salud o el diseño y calendarización de propuestas, como mesas redondas de la ciudadanía con la tecnología. |
| **5. Ordenagailu kuantiko bat Donostiarentzat** | **5. Un ordenador cuántico para Donostia** |
| 18:33an, Daniel Zulaikak hitza eman dio Ricardo Díezi, Donostia International Physics Center zentroko zuzendari eta ikertzaileari.<br>Eusko Jaurlaritzak, hiru aldundiek eta IBMk lankidetza akordio bat sinatu dutela esan du, Ibaetan eraikitzen ari den Ikerbasqueren eraikinean ordenagailu kuantiko bat instalatzeko. Halaber, azpimarratu du Donostia izango dela | A las 18:33 Daniel Zulaika cede la palabra a Ricardo Díez, director e investigador del Donostia International Physics Center.<br>Se refiere al acuerdo de colaboración firmado entre el Gobierno Vasco, las tres diputaciones e IBM para instalación de un ordenador cuántico en Ibaeta, en el edificio de Ikerbasque en construcción y subraya el hecho de que Donostia |

| | |
|---|---|
| IBMren ordenagailu kuantikoaren sei nodoetako bat, mundu osoan ezaugarri horiek dituzten bakarrenetarikoak izanda. Horrek hiriari eta lurraldeari ekar diezaiokeena argitu du, aplikazio ugari baititu berrikuntzarako, proiektuak garatzeko eta enpresak erakartzeko. Guztira, sei izango dira IBMren ordenagailu kuantikoak, eta toki hauetan instalatuko dira: Fraunhofer-Gesellschaft Erlangen (Alemania), Tokioko Unibertsitatea (Japon), Cleveland Clinic (AEU), Seuleko Yonsei Unibertsitatea (Korea), Quebec (Kanada) eta Donostiako azpiegitura. | / San Sebastián sea uno de los seis nodos del ordenador cuántico de IBM, únicos de estas características a nivel mundial. Explica lo que puede representar para la ciudad y el territorio por sus múltiples aplicaciones en innovación, en el desarrollo de proyectos y atracción de empresas. En total, serán seis ordenadores cuánticos de IBM instalados en el Fraunhofer-Gesellschaft Erlangen (Alemania), en la Universidad de Tokio (Japón), en el Cleveland Clinic (EEUU), en la Universidad Yonsei de Seúl (Corea) y en Quebec (Canadá), además de la infraestructura donostiarra. |
| Apustu sendoa dela nabarmendu du, garatzen ari den teknologia baten aurrendari bihurtuko gaituena, eta proiektu hau erakartzeko hiriaren profilak eta bere zientzia eta teknologia ekosistemaren ezaugarriek izandako pisua azpimarratu du. | Hace hincapié en que supone una fuerte apuesta para posicionarnos en la punta de lanza en una tecnología incipiente y pone en valor el perfil de la ciudad y las características su ecosistema de ciencia y tecnología en la atracción de este proyecto. |
| Azkenik, konputazio kuantikoa zertan den eta zein aplikazio dituen laburbildu du, fisika kuantikoak eta mundu atomikoak egiten duten errealitatearen interpretazioaren ikuspuntutik. Eusko Jaurlaritzaren IKUR estrategia ere aipatu du, Euskal Autonomia Erkidegorako lehentasunezko esparru estrategikoak definitzen dituena, besteak beste, teknologiena kuantikoena.<br>Jarraian, Gizarte Kontseiluko presidenteak hurrengo hizlaria aurkeztu du: Ainara Arizabaleta. | Y finaliza con unas pinceladas sobre lo que es la computación cuántica, desde la perspectiva de la interpretación de la realidad desde la física cuántica y el mundo atómico, y sus múltiples aplicaciones y citando la Estrategia IKUR del Gobierno Vasco, en la que se definen ámbitos prioritarios estratégicos para el País Vasco, entre ellos, las tecnologías. Cuánticas.<br>A continuación, el presidente del Consejo Social presenta a la siguiente ponente, Ainara Arizabaleta. |
| **6. Fabrika. Oraineko eta etorkizuneko proiektua** | **6. Fabrika. Un proyecto de presente y de futuro** |
| 18:51n, Ainara Arizabaletak, Fabrikako Negozio Garapenerako zuzendariak, hitza hartu du ADEGIren proiektua den Erakundeen Trantsizio Kulturalerako Errendimendu Handiko Zentroa aurkezteko. Esan duenez, Fabrikaren jardueren helburuak dira erakundeei beren kultura hobetzen laguntzea eta enpresetako taldeak | A las 18:51, Ainara Arizabaleta, directora de Desarrollo de Negocio de Fabrika, toma la palabra para presentar el Centro de Alto Rendimiento para la Transición Cultural de las Organizaciones, proyecto de ADEGI, señalando que las actividades de Fabrika se orientan a acompañar a las organizaciones a mejorar su |

| | |
|---|---|
| entrenatzea beren harremanak hobetu eta eraginkortasuna areagotzeko. | cultura y a entrenamos a los equipos de las empresas para mejorar sus relaciones y ganar en efectividad. |
| Enpresen moldagarritasunaren eta prozesu informalen (pertsonen arteko harremanak) garrantziaz aritu da, trantsizio kulturaleko testuinguru batean eta zenbait erronkaren aurrean, besteak beste: eraldaketa digitala, eskasia demografikoa, trantsizio ekologikoa edo etengabeko ziurgabetasuna. | Habla de la importancia de la adaptabilidad de las empresas y de los procesos informales (la relación entre personas) en un contexto de transición cultural, con retos como la transformación digital, la escasez demográfica, la transición ecológica o incertidumbre permanente, entre otros. |
| Konfiantzan oinarritzen den enpresa kultura berri hori ezinbestekotzat jo du erakunde eraginkorrago, afektiboago eta moldakorragoak lortzeko. Kultura berri horrek 8 funtsezko osagai edo printzipio ditu: | Habla de la importancia esta nueva cultura de empresa, que se basa en la confianza para lograr organizaciones más efectivas, afectivas y adaptativas y que se apoya en 8 ingredientes o principios clave: |
| · Inspiratzeko xedea<br>· Konfiantza<br>· Balio partekatuak<br>· Pertsonen ongizatea<br>· Lidergo erraztaile eraldatzailea<br>· Komunikazio eraginkorra<br>· Partaidetza<br>· Moldagarritasuna<br>· | · Propósito Inspirador<br>· Confianza<br>· Valores Compartidos<br>· Bienestar de las Personas<br>· Liderazgo Facilitador Transformador<br>· Comunicación Efectiva<br>· Participación<br>· Adaptabilidad |
| Era berean, azaldu duenez, Fabrikan, hori guztia oinarri zientifikodun metodo propio batekin lantzen da, sistema bizien teoria abiapuntu hartuta begirada sistemiko bat eskaintzen duena. Fabrikaren eginkizuna erraztailea da, eta Fabrikaren eraikina lantzen ari diren ibilbideak ahalbidetu eta programak garatzeko diseinatu da, enpresen trantsizio kulturala lortzeko xedearekin. | Y explica que desde Fabrika esto se trabaja con un método propio, con base científica, basada en la teoría de los sistemas vivos y que proporciona una mirada sistémica; señala que su rol es el facilitador y describe el edifico de Fabrika, diseñado para facilitar los itinerarios y el desarrollo de los programas en los que se trabaja, orientados a la transición cultural de las empresas. |
| **7. Eskaerak eta galderak** | **7. Ruegos y preguntas** |
| 19:10ean, Daniel Zulaikak galderak egiteko txanda ireki du. | A las 19:10 Daniel Zulaika abre el turno de preguntas. |

| | |
|---|---|
| Eneko Goiak, hiriko alkateak, hartu du hitza eta barkamena eskatu du berandu iristeagatik. Ondoren, Carme Artigasek, Digitalizazio eta Adimen Artifizialeko estatu idazkariak, Donostiako euskal ordenagailu kuantikoaren proiektuari buruz egindako adierazpenen berri galdetu dio Ricardo Díezi. | El alcalde de la ciudad, Eneko Goia, toma la palabra para disculparse por su entrada tardía y pregunta a Ricardo Díez sobre las declaraciones de secretaria de Estado de Digitalización e Inteligencia Artificial, Carme Artigas, en relación con el proyecto del ordenador cuántico vasco en Donostia / San Sebastián. |
| **8. Bileraren amaiera** | **8. Cierre de la sesión** |
| Gizarte Kontseiluko presidenteak, Daniel Zulaikak, agurra egin du eta eskerrak eman dizkie bertaratuei. Horrez gain, eskerrak eman dizkie, zehazki, alkateari bere laguntzagatik, Estrategia Bulegoari egindako lanagatik, eta Batzorde Iraunkorreko kideei beren laguntza eta parte hartzeagatik. Horren ondoren, bilera amaitutzat eman da 19:14an. | El presidente del Consejo Social, Daniel Zulaika, dedica unas palabras de despedida y agradecimiento a las personas presentes y, de manera concreta, se dirige al alcalde, agradeciendo su apoyo, a la Oficina de Estrategia, por su labor, a las y los miembros de la Comisión Permanente, por su acompañamiento y participación. Tras lo cual se da por terminada la sesión a las 19:14. |

Donostia / San Sebastián, 2023/04/19